

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2014ko maiatzaren 30ean aurkeztuko du

Ragnar Kjartansson: *Bisitariak (The Visitors)*

Ragnar Kjartansson: Bisitariak (The Visitors)

- Datak: 2014, maiatzak 30 – azaroak 2
- Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya
- Film & Video aretoa (103)

Guggenheim Bilbao Museoak, lehen aldiz Espainian, *Ragnar Kjartansson: Bisitariak (The Visitors)* lana aurkezten du, maiatzaren 30etik azaroaren 2ra. Museoko Film & Video areto berrian egiten den bigarren erakusketa da, hain zuzen, aretoa bideoarteari, bideo-instalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskaintzen zaie.

Bisitariak, 2012, kanal anitzeko bideo-instalazioa da eta bederatzi proiektio hartzen ditu bere baitan. Instalazioaren bidez, Ragnar Kjartansson artistak (Reykjavik, Islandia, 1976) Rokeby etxaldeko ekintza musikala jasotzen du; hain zuzen, New York estatuan, Hudson ibaiaren ibarrean, kokatzen den luxuzko etxe historiko horri bisita egiten dio artistak 2007. urtean ezagutu zuenetik. Etxe horretan bizi den familiari esker, Rokeby etxaldeak zahartze erromantiko eta bohemio kutsua gordetzen du, artistaren inspirazio-iturri izan zen istorio luze eta eklektikoak erakusten duen moduan.

64 minutuko lan hau burutzeko, gertuko lagun talde bat —Reykjavikeko musikari ospetsuak, batzuk nazioartean ere ezagunak— gonbidatu zuen artista islandiarrak, Rokebyn performance musikal bat egiteko. Instalazioaren bederatzi kanaletan musikariak ikus daitezke etxearen gela desberdinetan euren musika-tresnekin melodia bera jotzen. Banakako emanaldi horien batuketak osatzen du performancea, bai eta zentzua eman ere; artistak “espiritual femenino nihilista” gisa deskribatu du.

Instalazioak, batetik, interpretatzailearen kontzeptuaren analisia adierazten du, interpretazio kolektiboaren emozio bizia agerian utziz, eta, bestetik, artistaren kultura eskandinaviarraren ezaugarri diren lotura afektiboaren iraunkortasunaz eta erromantizismo malenkoniatsuaz gogoeta egiten du. *The Visitors* izenburuak Abba taldeak 1981ean, taldea desegiteko prozesuan murgilduta zegoela, kaleratutako azken diskoari egiten dio erreferentzia. Bideoan entzuten den kantua letrak, artistaren emazte ohiak idatzia, eta musikak malenkoniak eta lor daitekeen harmoniaz betetako mundura garamatzate.

2012an Zuricheko Migros Museum für Gegenwartskunst museoan estreinatu zenetik, *Bisitariak* lanak ibilbide oparoa izan du nazioartean, eta besteak beste, Malmö, New Yorken, Vienan, Milanen eta Ohion erakutsi da.

Artistaren biografia

Ragnar Kjartansson 1976an jaio zen Reykjaviken (Islandia). Bere jaioterriko Islandiako Arte Akademian eta Stockholmeko Royal Academyn egin zituen ikasketak. Performanceen arloko jardunean, artearen garapen osoa baliatzen du Kjartanssonek. Zinemaren historia, musika, antzerkia, kultura bisuala eta literatura presente daude bere bideo-instalazioetan, iraupen luzeko performanceetan, marrazkietan eta

margolanetan. Simulazioa eta eszenaratzea funtsezko lanabesak ditu artistak ikusleari emozio zintzoak transmititzeko eta egiazko esperientziak eskaintzeko.

Mundu osoko museo eta erakundeetan egin ditu erakusketak, besteak beste, Austingo Arthouse at the Jones Center (2011), Bostongo Institute of Contemporary Art (2012) edo Milango La Fondazione Hangar Biccoca (2013) erakustokietan. Berriki, Vienako Thyssen-Bornemisza Art Contemporary museoak (2013 eta 2014) eta New Yorkeko New Museumek (2014) ere artistaren bakarkako erakusketak ikusgai izan dituzte.

Kjartanssonek Islandiaren ordezkari gisa parte hartu zuen 2009an Veneziako Bienalean eta 2011n, berriz, Malcolm McLaren Award saria eskuratu zuen New Yorkeko Performa 13 bienalean.

Film & Video (103 aretoa)

Museoko Film & Video aretoa joan den maiatzaren 6an ireki zen jendaurrean [Christian Marclay: Erlojua \(The Clock\)](#) lanarekin. Areto hau bereziki diseinatu da bideoarteari, bideo-instalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei buruzko programak gauzatzeko, bai Guggenheim Museoetako obrei bai nazioarteko beste bilduma batzuei dagokienean. Udazkenean Rineke Dijkstra artistaren *The Krazyhouse*, (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*), *Liverpool, UK*, 2009 lana erakutsiko da areto honetan.

Ragnar Kjartanssonekin solasaldia (ekainak 3, asteartea)

Ragnar Kjartansson artistak bere sortze-prozesuaz eta *Bisitariak* lanaz hitz egingo du Álvaro Rodríguez Fominaya erakusketako eta Solomon R. Guggenheim Museumeko komisarioarekin. Film & Video aretoan (103) ikusgai egongo da lan hori irailaren 7ra arte.

Lekua eta ordua: Entzungela, 18:30

Sarrerak dohainik (sarrerak nahitaez Museoaren txarteldegietan eta webgunean eskuratu beharko dira).

Azaleko irudia:

Ragnar Kjartansson

Bisitariak (The Visitors), 2012

Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.

Iraupena: 64 minutu

Artistaren eskaintza, Luhring Augustine, New York, y i8 Gallery, Reykjavik

Argazkia: Elísabet Davids

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Prensa irudiak:
Ragnar Kjartansson: Bisitariak (The Visitors)
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. Artistaren erretratua
Argazkia: Nielsen Omvik



2. Artistaren erretratua
Argazkia: Karl Lilliendahl



3. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine, New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



4. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine, New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



5. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu © Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine, New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



6. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Artistaren eskaintza, Luhring Augustine, New York, y i8
Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



7. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine,
New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



8. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine,
New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



9. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine,
New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



10. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine,
New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids



11. *Bisitariak (The Visitors)*, 2012
Bederatzi kanaleko HD bideoaren proiektzioa.
Iraupena: 64 minutu
© Ragnar Kjartansson. Artistaren eskaintza, Luhring Augustine,
New York, y i8 Gallery, Reykjavik
Argazkia: Elísabet Davids

